

Santamariaren pentsamendu atarikoak

Joxe Azurmendi
EHUko irakaslea

Santamariaren pentsamendua pertsonalista dela guztiok ezaguntzat emanik, galdetzen da zehatz-mehatz zein galderari erantzun nahi izan dien, haren pertsonalismo konkretuak. Artikuluak azaltzen du horiek ez direla funtsean kultura ororen eta filosofiaren historia osoaren azpian beti dauden galderak besterik: bizitzaren zentzuaren arazoa bere hiru mailatan, hots, bizitza indibidualarenean, bizitza historian landuarenean eta bizitza kosmoan ahituarenean. Gizarte moderno teknologikoan galdera horien birplanteamendua dago, pertsonaren balioaren galdera, helburu eta ez bitarteko bihurtzen baita.

Realizing and basing on the idea that, as everybody knows, the thought of Santamaria is personalistic, the issue to know is to which questions Santamaria's personal reference responds. The article shows up that these questions are the same as the ones who underlay at the bottom of every culture and within the history of philosophy: the problem of the sense of life, on its triple level: individual life, life worked in history and life consummated in the cosmos. These questions are reopened within the modern technological society as a question of the value of a person as an objective, not as a media.

UEU Karlos Santamariaren ideiari eta bultzadari zor zaio¹. Karlos Santamaria matematikaria, pentsalaria, ekin-tzaile kultural eta politikoa (Franco ondoren Kontseilaria izan da Eusko Kontseilu Nagusia), euskaltzalea, pazifista, hainbat gauza diferente izan da: eta hainbat gauza diferenteren buruz agertu du bere pentsamendua, liburu, artikulua eta zortzirehun inguru kazetako zutabetxotan. Nazio-arazoak eta Estatuaren izaeraz, gerra modernoak eta biolentzia iraultzaileak, tolerantzia, askatasunak, euskararen etorkizunak, bakeak hedatu du bere iritzia, betiere pentsaera pertsonalistaren eran garatua. Ez dugu horixe gure gaia izango, horrekin zeri erantzun nahi izan dion baizik, hau da, zein zituen funtsezko galderak, oraindik erantzuna bera bigarren planoan utziaz².

Santamariaren pentsamendua pertsonalista da. Euskadin presentzia handiena eduki duten filosofiak seguruena hauek izan dira XX. mendean: marxismoa, existentzialismoa, pertsonalismoa, batzuetan neotomismoarekin lotuta egon daitekeena eta, beste batzuetan, existentzialismoaren aldaketa ere kontsidera daitekeena.

1. Bizitzari buruz galdezka

Zer da pertsonalismoa? Erraz sortzen den galdera da eta puntu honetan nekez erantzun daiteke egoki samar. Oso erantzun orokor bat emanaz, ideia bat egiteko, gaiari sartuz batera, esan genezake heriotzaren eta "ororen zentzugabekeriaren" meditazioa dela: beraz, ez da bereziki modernoa, kultu-

ra guztien betiko arazoa da. Esan daiteke, izan ere, filosofia guztiak, bai eta erlijio eta mitologia guztiak ere, *meditatio mortis* hori besterik ez direla, Mesopotamia eta Egiptotik gurera arte. Bizitzaren zentzuaren bilaketa.

Baina bizitza/heriotzaren zentzuaren arazoak gutxienez baditu bereiztea komeni diren hiru maila.

Aurretik, ordea, asko ez duela *Egunkaria*-n agertutako artikulua batetik pasartetxo batzuk irakurriko dizkizuet, oraintxe bertan arazoak gaurkotatzen modu anitz duela ikusteko.

1) Hona testua:

Zilegi al da Goardia Zibil bat hiltzea? [Erantzuna orain ez zaigu interesatzen: mesedez, galdera interesatzen zaigu]. Norbait hiltzea, bizi kentzea da. Eman dezagun ez dela zilegi. Eta eman dezagun, norbaitek honelaxe arrazoitzen duela ezezkoa: «Bizitzari zentzua eman behar zaiola edo zentzua aurkitu behar zaiola entzunez eta pentsatuz bizi izan gara urte mordoan, nahiz eta nik neuk aspaldi samar baztertu nuen ideia hori, horrek dena irrazionaltasunaren begi muturreraino sublimatu eta idealizatzea besterik ez baitakar. Bizitzak ez du bizitza beste zentzurik...»

Egunkaria-ko artikulua egileak abertzaletasun armatuari nahi dio uko egin. Xede hori pertsegitzen du bere arrazoiketak. Eta orain mesedez eskatu nahi dizuet, arrazoiketari bakarrik beha diezaiozuela, ez biolentziaren bidezkotatzen edo bidegabekotasunaren arazoari, edo horretan zuetako bakoitzak eduki dezakeen iritzia. Gure auto-

1. 1996ko uztailaren 15ean Iruñean emandako hitzaldia, UEUko Ikastaroen irekiera ekitaldian Larraona Ikastetxean.

2. Santamariaren idazki guztien bilduma, JAKINEK burutua, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean ikuska daiteke, behin-behineko kopia batean: hemen Santamariaren testu aipatuen norabide bibliografikorik ez dugu emango, edizioa laster egingo delakoan.

reak arrazoitzen duenez, bada, bizitzari zentzu bat asmatu nahiz,

hor sortu ziren, mito zaharren ondotik, mito berriak: erlijioak. Eta bizitzari zentzua emateko, jainkoaren izenean gizona borrokan ipini dute erlijioek, bere buruarekin eta ondokoarekin (...). Eta erlijioaren mitoak huts egin zezakeenerako, badaezpada ere, beste mito indartsu bat asmatu zuten munduko ideologo handiek: patriotismoarena. Ordutik aurrera *pour la patrie* egingo du gizakiak borroka eta, behar izanez gero, aurrean jartzen zaiona hil. Hauxe da pertsonak nozitu behar izan duen paradoxa eta aberraziorik handiena: *fatherland* edo aberria bezalako kontzeptu abstraktuen izenean elkar hil.

Autoreak "moral laiko" baten aldekoa deklaratzeko bere burua. Esaldi batean bil daiteke funtsean, be-rak laikoa kontsideratzen duen moral hori: «Descartesez hala *deskubritu* zuenetik existitu egiten gara eta existentzia hori gozatzea eta besteei gozatzeko uztea da gure helburu bakarra»³.

Ikusten duzuen bezala, eztabaida politiko egunerokoen barruan ere arazo filosofikoak sartzen zaizkigu barnebilduta. Ordea hemen ez goaz eztabaida politiko horietara, Santamariaren pentsamendua bere testuinguruan kokatzera baizik. Bizitzak, badu ala ez du berak zentzurik, eta nolako zentzua dizu azkenean edonola ere? Horra gure problema. Esan bezala, eskertuko nizueke irakurri dizuedan arrazoiketa gogoan izatea, bere modu horretan-txe, baina autorearen intentzioa edo politikoki autorea zer defendatzera doan orain ahaztuz berdin da zeuok helburu horrekin ados zaudeten ala ez. Eta, esan bezala orobat, bizitzaren zentzuaren edo zentzu faltaren (eta zentzua norberak *eman* behararen)

arazoa hiru mailatan aipatuko dugu, Santamariari atxikiz beti. Santamariak biolentzia ezagutzen duen Euskal Herrian eta II. Mundu Gerraren ondoren idatzi du. Biolentziaz, bakeaz, hainbat orri idatzi du. Baina batez ere, orain hau axola zaigu, gizatasunaren filosofia orokor bat da garatu nahi izan duena, problema partikular batzuei soil gehiegi lotu gabe eta obsesio horien funtzioan filosofia guztia bortxatu gabe.

2) Bigarren irakurgaitxo bat oraindik. Hain zuzen biolentziaren arazo horren inguruan (baina hortik landa): Gandhi eta Asiako pentsamendua eta, asko aipatzen dira orain gure artean. Beharbada ezagutuko duzuen arren, "Kandárako", Erdiko Bildumaren 51. Kapitulu zoragarria laburbilduko dizuet.

Sublimea Kampá-n egon zen garaian, Gaggará lakuaren erriberan, monje saldo handiaz berarekin, Pessa, elefante itzainaren semea, eta Kandárako peregrinoa Maisuari galdegitera eta entzutera etorri ziren. Sublimeak lau gizaki suete dagoela, irakatsi die: bere buruaren penatzailea, hurkoaren penatzailea, norbere eta hurkoaren bien penatzailea, eta ez bere eta ez hurkoaren penatzailea; eta bestalde, jakituriaren lau zutabe. Ez da jakituna bere buruaren penatzailea: munduko gurariak eta asmoak dituen; ez da jakituna hurkoaren penatzailea: ongia gogo eta oinazea aihar duen izakiari, oinazea eta pena jasanarazten diena. Horixe baita, irakasten du Sublimeak, ardiak eta zerriak hiltzen dituen, ehiztaria, arrantzalea, harakina, bidelapurra, borrheroa... Labur: aldiz, ez bere buruaren eta ez hurkoaren penatzailea, argitua dena eta jakituna, bizidun ororekiko maitazarrez eta urrikiz beterik bizi da⁴.

3. "Bizitzak ez du bizitzea beste zentzurik", *Egunkaria*, 1996/04/28, 3. orrian.

4. *Zwei Reden Gotamo Buddhos*, übertragen von K. E. Neumann, Leipzig [Insel Verlag] d/g.

Gaur denok oso gogokoa dugun pentsaera.

Baina "biolentoen" aurka pentsamendu hori inbokatzeko bada, norberak ere kontsekuentea izan behar du pentsamendu horrekin: jakituna landako belarretatik eta ondoetatik, fruitu erorietatik, basarrozetik, oihaneko sustraieetatik eta bihietatik, landareen esnetik eta zuhaitzen erretxinetik bizi da. Bizitza "santua" da, hau da, bereziki behia da santua, bizitzaren ama eta bizitza unibertsalaren sinboloa: libre ibiltzen utzi behar zaio Bilboko eta Donostiako kaleetan; eta biziduna errespetatzeko eta ez penatzeko, ur garbia edanez eta bekorotza janez bizi behar da bizi, zeruaren azpian (inoiz pentsatu dugu, etxegintza soilak zenbateko biolentziako kultura suposatzen duen?), Sublimeak irakasten duen bezala.

Goazen, bada, bizitzaren galdera bere hiru mailatan ikustera.

A) Galderen testuingurua pentsamenduaren barruan

I.- BIZITZA INDIVIDUALAREN ZENTZUAZ GALDERA: Gaurko biolentziak probokaturikoa zen aurreneko testua (dudagarria hor, pentsamendua bera; eta dudagarriagoa, pentsamendu horren zerbitzuan egiten den errebaso historikoa): II. Mundu Gerrako biolentziak probokaturiko Camusen *Le Mythe de Sisyphé* (1943) egiaz laikoaren hasierarekin konparatzen badugu, eskandalutsua gertatzen da kontrastea. Maiz aipaturiko hasiera duzu hau: «Il n'y a qu'un problème philosophique vraiment sérieux: c'est le suicide.

Juger que la vie vaut ou ne vaut pas la peine d'être vécue, c'est répondre à la question fondamentale de la philosophie»⁵. Inork ez du bere bizia ematen, arrazoitzen du Camusek (bizia kentzea ez baino ematea da orain gogartegaia), ideia abstraktuengatik, logika edo matematika edo fisikarengatik adibidez⁶. Aitzitik, zenbait jende bere burua hil egiten du, bizitzeak merezi ez duelakoan; beste jende askok paradoxikoki, "bizitzeko arrazoi"tzat daukarengatik hil dezatela onartzen du («ce qu'on appelle une raison de vivre est en même temps une excellent raison de mourir»). Konklusioa, beraz, labur-labur: «Je juge donc que le sens de la vie est la plus pressante des questions»⁷.

Zein zentzu izan lezake heriotzak –hau da, bizitzak– federik gabe? (Fedea ez izaki derrigor kristaua). Heriotzaren zentzua, bizitzaren zentzua da. Zer balio du bizitzak? Zerk ematen dio balioa?

Egunotan maiz entzuten ditugu: «Bizitza sakratua da...», edo antzekoak. Egoera oso gaitza da gurea. Egoera honek fundamentalismo sinplista batzuetan jautsarazteko arriskua daukagu⁸. Mendebalean behinik behin hori ez baita egia:

1) Mendebaleko tradizioan gizartea bizitzaren gaineko da (zenbait baldintzatan): armaden existentzia hutsak hori adierazten du. Erakunde publiko ia guztienak, funtsean (esaldi horiek are absurduagoak dirudite polizia municipalak berak pistolaz armatzen dituen hirian esanak izateko hain lotsa gutxiarekin). Pascalen ironiak: «ibaiaren

5. Camus, A., *Le Mythe de Sisyphé. Essai sur l'absurde*, Paris 1942, 15.

6. Ib.: «Je n'ai jamais vu personne mourir pour l'argument ontologique. Galilée, qui tenait une vérité scientifique d'importance, l'abjura le plus aisément du monde dès qu'elle mit sa vie en péril».

7. Ib., 16.

8. Ez dago gure arazo puntual bat arrazoiterik, mendebal osoa ezabatzen duten arrazoiekin.

alde honetan inor hiltzen baduzu, kriminala zara; beste aldean hiltzen baduzu, patriota zara», gutxi gora-behera buruz aipatuta, nahikoa erakusten du mendebal modernoan (baina Atenasen eta Japonian ez da ikusten oso bestela izan direnik), Jainkoarekin ala gabe, bizitzaren sakratua zer izan den. Mendebaleko gizarte osoa (Zuzenbidea, Estatua, etab.) gizartearen “eskubi-deak” bizitza indibidualaren gaineko-tzat suposatuz dago eraikita. Bestela ez “gerra justuaren” teoriarik, ez Nazioarteko Zuzenbide, ez ezer ezin uler daiteke mendebaleko historia politiko modernoan.

2) Gero, mendebaleko moralean beti egon dira bizitzaren gainetiko balioak, bizitzari balioa ematen hain zuzen: askatasuna, ohorea, kastitatea, adiskidetasuna, leialtasuna, etab. «Life every man holds dear; but the dear man / holds honour far more precious-dear than life», espresatu du Shakespearek: zaldunen ideal klasikoa⁹. Iku-sitako lehen testuaren arabera ematen du bizitzak gauzkala eskuan gu eta ez guk bizitza (gizon-emakumeon adimenak eta erantzumenak bere eskuan bi-zitza). Hau da, gure kanpoko absolutu batetik bestera pasatzen garela berriro; berdin da hori behin Jainkoa, gero Natura eta orain Bizitza bada: betiere hura goian eta gu adoratzaile.

3) Batez ere mendebaleko izpiritua-litatean (“mendebala” esaten badut, beste kulturak gutxiago ezagutzen ditudalako bakarrik da eta ez nukeela-ko beste gabe gizadi osoa pentsamol-

de honekin konprometatu nahi: beraz, ez-mendebalaren errespetuagatik, ez eskusio asmoz) *martiriaren* kontzep-tua daukagu, fundamental gure kultu-ran. Abertzaletasunak bere martiriak dauzka (eta euskaldunak bereak, espai-nolak eta frantsesak bereak), sozia-lismoak bere martiriak dauzka, zientziak ere martiriak dauzka bere modura; erli-jio katolikoak, protestanteak, juduak, etab., bakoitzak bereak dauzkaten martiriak ez esateko. Martiria, defini-zioz, bere bizia bizitza baino goragoko balio bati sakrifikatzen diona da. Bizit-zak beste balio baten bitartez hartzen du balioa.

Sokrates gartzelan hil da eta Jesus gurutzean: horiek izan dira bizitzaren zentzuaz meditatzeke mendebalean eduki diren erreferentzia nagusiak.

Kasu: oharrok adibideak bakarrik dira, pertsonalismoak zeri erantzuten dion ikusteko. Eta bizitzaren zentzua-ren galderari erantzun nahi dio lehen-lehenik. Galdera errebindikatu nahi dute aurren-aurrena; alegia, Camusen erradikaltasun barbaroaren zuzenta-sun osoa, erantzunaren beldurrez galdera bera ukatzen duen sasierradi-kaltasun ororen aurka. Galdera horren seriotasunaren alde, hona Camus hil zenean Santamariak idatzi zuena:

«No hay más que un problema filo-sófico verdaderamente serio: el suicidio». Con esta frase atroz y desconcer-tante comienza Camus el primer capítulo de su libro *El mito de Sísifo*.

9. Cfr. *Troilus and Cresida* V, 3. Eta beste hainbat lekutan: Zesar tiranoa hilko duen Bruto filosofoak «I love the name of honour more than I fear death» adierazten du, ohorearen eta heriotzaren arteko alternatiba (*Julius Caesar* I, 2). Orobat Hermionek in *The Winter's Tale* (III, 2): «No life,/ I prize it not a straw, but for mine honour,/ Which I would free...» Mendebaleko kulturari maiz egon da bizitzaren gainetik neska birjinaren “ohorea” bera: «Death is the fairest cover of her shame/ that may be wish'd for» (*Much Ado about Nothing* IV, 1). «Death is a fearful thing. - And shamed life a hateful», dialogatzen dute *Measure for Measure*-n Isabela eta Klaudiok.

A menudo he solido releer las páginas de este ensayo y meditar sobre ellas acerca del gran tema ascético de la vida y de la muerte. Quiso la casualidad que lo hiciera una vez más en la mañana misma del día en que el escritor francés había de ser tan brutalmente arrancado de la existencia. Extraña coincidencia.

Al anochecer, alguien me trajo la noticia inesperada: el libro estaba aún sobre la mesa, como si fuera el cadáver de un amigo de cuerpo presente. No pude evitar el echar mano del mismo y volver a hojearlo emocionadamente, mientras mi espíritu se iba por sí solo hacia una oración sin palabras.

El planteamiento del tema en aquel primer capítulo tiene una fuerza bárbara y no puede ser, en modo alguno, tachado de ilógico: «Decidir si la vida vale o no la pena de ser vivida, responder a esta pregunta, tal es la cuestión fundamental de la filosofía. Lo demás –si el mundo tiene tres dimensiones, si el espíritu reconoce nueve o doce categorías– es completamente secundario, puro juego». Parece que a uno está escuchando la voz del Padre Ignacio repetir aquello del Evangelio de San Mateo: «¿De qué te sirve ganar todo el mundo si pierdes tu alma?»

Si la vida no tiene sentido fuera de sí misma, si no conduce a nada, como no sea a engendrar nuevas vidas que tampoco llevan a ninguna parte, entonces, señores, nos encontramos en la plenitud del absurdo y no hay ninguna razón que nos empuje a seguir viviendo. ¡Qué se me da a mí todo, si todo es nada!

II.- BIZITZAREN ZENTZUAZ HISTORIAN:
Norbere bizitza pribatuari norberak ematen dio zentzua: zein zentzu dauka historia? Nire komunitateak, nazioak? Nire bizitzak historian, komunitate horren nondik norako bilakae-
ran, gizadiaren bilakabidean?

Kulturak hil egiten dira: Egipto, Grecia, Erroma. Batak besteari uzten dio lekua. Halako kultura ederrak, pena da hil egin behar izatea (euskar kultura ere noizbait hil egingo da, ezta? Zein zentzu du, orduan, euskal kulturaren alde hainbeste nekatzeak?). Zentzu gabe sofritzea da izugarriena. Hartzen badugu azkeneko Mundu Gerra, milioika hildako egon da, frontean, hirietan. Urbe handi kiskaliak... Zenbat oinaze munduan! Baina, antza, ikaragarriena, zuek eta nik ere gehien ezagutzen duguna eta gehien gogoratzen duguna, kontzentrazio esparruak dira, hau da, oinaze guztietan zentzugabekoa! Zein zentzu dauka bizitzak kontzentrazio esparru batean? Galdera hori horrelaxe planteatu beharra daukagu. Bestea ez da intelektualki onesta. Goza daitekeen bizitzaz bakarrik galdetuko al dugu zein den haren zentzua? Ahaztu egin behar al dira egunoro-egunoroko biktimak, legeak edo gaitz sendaezinek eta sadismoak heriotzera kondenaturikoak, torturatuak, inperialismoak zukutuak, goseak hiltzen ari diren haurrak eta haien amak, bizitzaren zentzuaz galdetzen dugunean? Borrokak zentzuren bat baldin badauka, zein zentzu dauka historian ETako preso baten amaren doloreak?

Historiaren filosofiak saiatu izan dira nolabait erantzunak ematen (marxismoa etab.). “Progresoaren” ideiarekin bilatu nahi izan dute erantzun hori arrunki. Baina progresoak, gehienez ere, generoarentzat balio lezake erantzun bezala, ez indibiduoarentzat; gizadiarentzat, ez gizaki indibidualarentzat.

Hain zuzen bi gerrek berdin eduki duten zerbait izan da, bai Espainiako gerra zibilean eta bai II. Mundu Gerran, azkenean gerra guztiek galdu dutela bietan. Ekonomikoki eta politikoki

batzuk garaile harro asko atera dira noski; baina ideologiak, ikusi da, denak geratu direla desprestigiatuta. Marxismoaren krisia ez da orain hasi, Berlin-go harresia erori denean: holokaustoa-
ren aurrean jela-tuta geratu da bihotza, ikustean Marxek –historiaren filosofia mendebaldarrak– hitz bat ez zuela esaten biktimaren heriotza bakartiaz. Marxismoak ez du gizabanako/bizitzaren zentzuaren mailan planteamendurik, aitortu du A. Schaff komunista poloniarrek. Batez ere existentzialistek kritikatuko dute hori pentsamendu “sistema” tradizional guztien historian: gizaki konkretua galdu egiten dutela, bere existentziarekin, barruko intimitatearekin. Pertsonalismoa existentzialismo-mota bat bezala ere har daiteke: baina existentzialismo “existentziaren zentzuduna” (Santamariaren kasuan zentzu hori kristaua izaki), oraintxe ikusiko dugunez.

Goardia Zibil bat hiltzen bada atentatuan, Goardia Zibil bat hil da, arrazoi determinatu batzuegatik eta helburu batzuekin, eta analisi bat egin genezake ekintza horren balioaz estrategia baten arabera: analisiari ihes egingo diona da, Goardia Zibil hori aita, senarra, ama baten umea ere bazela, bere kezka eta beldurrak zeuzkala, bere pozak, itxaropenak, hau da, bere intimitate “ez historiko” arras pertsonala, Goardia Zibil “hori” unibertsoan eta sekula guztian izaki bakar-bakarra eta berezia bihurtzen dutena (bistan da, hori dena tranpa gisa ere har daitekeela analisia ezkutatzeko hain zuzen: atentatu bat dagoen bakoitzean prentsak horixe egiten duenez, denok gaude ohartuta). Berrero esan: ez dut adierazi nahi, ez Goardia Zibilak hil behar direnik ez eta hil behar ez direnik ere. Esaten ari gara da: bere zentzu/esplikazio politiko, militar, eta nahi delako guztiez gain, nola asumitu his-

toriaren gure interpretazioan subjektuak *pertsona* izatearen alde? Eta, berrero, pertsonaren galdera da historiaren zentzuan errebindikatu nahi duguna, beste aspektuak ukatu gabe. “Zentzurik gabea” ote da gizabanakoaren existentzia txikia kultura eta inperio handien gurpilean, haren kontzientzia dardarti, unibertsoan sekula behin bakarrik labur-labur egongo den hori? Eta bere intimitate bakarrak zentzu propio autonomorik ez badu, sakrifika ote daiteke arazo gabe “guztiaren zentzuaren” faboretan?... Galderak eta galderak.

Pertsonalismoak, historiak eta unibertsoak ere irensten ez duen gizaki bakoitzaren autonomia hori salbatu nahi du, historiaren eta unibertsoaren bere meditazioan. Baina, horretarako, pertsona –gizabanakoa bera, ez oro har gizadia– bizitzaren eta bilakaeraren “gainera”, hots, alderen batetik menpegabe eta libre, bere absolututasun-espazio propio intimo batekin, dago pentsatu beharra.

1957an sobietarrek Laika zakurra jaurtiki zuten espaziora Sputnik II satelite artifizialean, astebete inguru bizirik irauteko, grabitate gabeko baldintzetan biziduna nola moldatzen den ikertzeko esperimendu batean. Unibertsoa inguruan jirabiran duen Laika bezala, horrelatsu dago historian gizakia bere bakardadean, hots, bere kontzientzian itxita, bere intimitatearen kapsulan.

“Laika” pasará a la historia, porque es el primer ser de origen terráqueo que muere en el espacio intersidereal.

Con su alma animal, ¿pudo darse cuenta de su terrible situación, de su terrible abandono? Yo me pregunto, sobre todo, si ladró. Si lanzó uno de esos quejidos que el animal acosado emite como una llamada de socorro, dirigida

no se sabe a quién, como un grito de la naturaleza que clama donde le duele.

Un ladrido condenado a apagarse en el vacío del espacio sin aire, que ningún ser terráqueo, hombre o animal, podía oír.

La perra "Laika" me hace recordar al hombre tal como lo ven los existencialistas. El hombre lanzado a la existencia, arrojado a ella como una especie de basura cósmica. Nuestros gritos, nuestros ayes, ¿no los escucha nadie? Nosotros, que tenemos conciencia de que existimos, ¿habremos sido parachutados de un modo despiadado por algún genio maléfico y mil veces odioso al espacio de la vida? La respuesta de la fe es que no. Es que estamos en las manos grandes y suaves del Padre.

Y la muerte de la perra "Laika", con ser un suceso natural e insignificante, no ha pasado desapercibida a su mirada. Como no ha pasado tampoco el intento de esos hombres de la Tierra que pretenden ir a la Luna. «¿No se venden dos gorriones por un real? Pues ni siquiera uno de ellos cae sin que el Padre lo disponga».

«Le silence éternelle de ces espaces infinis m'effraie», decía Pascal.

Ahora, el silencio eterno de los espacios habrá sido alterado, acaso, por un extraño ruido. Por un ladrido misterioso que también, a su manera, va dirigido a Dios.

Bizitzaren zentzu itaunaren hirugarren mailan sartu gara honekin.

III.- BIZITZA KOSMIKOAREN ZENTZUAZ:
"Zer axola niri dena, dena ezereza

bada" bezalako esaldiek, Unamuno gogorazten digutenek («Si del todo nos morimos todos, para qué todo?... Entonces no es nuestro trabajado linaje humano más que una procesión de fantasmas que va de la nada a la nada», berriro gutxi gora-behera buruz aipatuta)¹⁰, batez ere Heriotza Kosmikoaren aurrean balio dute horrela.

Turgenev, *Ikuskariak - Fantasia bat*¹¹, irakurria duzue agian: narratzailea, izpiritu eme maitagarri bati besarkaturik, nahi duen aldera hegaldatzen ahal da gaez espazioan nahiz denboran. Hala Erroma eta Paris bisitatzen ditu, Zesarren legioak martxan ikusten ditu orruka Italian behera, Stenka Rasin bandido kosakoaren triskantzak Wolga eskualdean gora, kurrilo-banda txairo batekin gurutzatzen du zerua legenden Alemaniatik Petersburgora (eta bide batez kurriloen hegada bizia triangeluan eta garraisi arraiak, elkarri adore emanez, deskribatzen dira); mendiak, jardinak, itsasoak, marmolezko jauregiak, antigualeko dorre zaharren hondarrak, zitzu batean pasatzen dira bere azpian. Zeru goitik beha-beha, txundigarria da giza mundua. Zibilizazioa, historia. Oso humanoak ere badira gizakiaren zibilizazioa, historia. Irrino maltzur batekin erreparatzen ditu Turgenevek errusiar probintziano fardelak (horiek etxean daude-nean, Errusian, "jauntxo errusiar barbaroen pozkidak nolakoxeak diren", ikus adibidez *Dubrowski* nobelatxoan Puxkinek ironizatuta) harropuzkeria dariela kosmopolitarena egin nahita Parisen: Kulmametow Printzea eta bere laguna, bata besteari Boulevardean espaloi batetik bestera oihuka,

10. Literaturan benetan tradizio handiko kezka dira hauetak: «All's but naught», aspaldi zioen Shakespearen Kleopatrak, guztiaren ezdeusa suizidioaren gaiarekin lotuz hain zuzen: «Then is sin/ to rush into the secret house of death,/ eta death dare come to us?» (IV, 15). Oroit halaber: «What shall we do, Enobarbus? - Think, and die» (*Antony and Cleopatra* III, 11).

11. Turgenjew, I., *Visionen und andere phantastische Erzählungen*, München 1961.

«allons souper, arin, j'ai engagé Rigol-boche berbera in persona!». Edo estepako lurjabe edukitsu potoloak, paristar damisela panpinkera kortejatzen aker baldresak, /r/ manera frantsesean ahoskatzen ahalegin nabarmenegiak egiten, basatasun-itxurarekin beren moztasuna disimulatzearren. Véfour errestauranteko garsonak kopiatzen txutxuputxu, ibilkera fazati, irrino, leun-keria eta imintzio guztietan. Turgenevek narda sentitzen du bere herikideen ikuskari horiekin. Ridikuloa da horrela ibiltzea, ez garen seinoritoak garela sinestu nahita, eta sinestarazi nahita...

Baina ridikuloa, ikusteko moduaren arabera, giza historia guztia ager dakiguke, ez paristarra irudi nahi lukeen errusiarraren finezia trauskilak bakarrik. Ilargi-gauetako bere hegaldietan, hau, hori eta hura ikusi eta gero, gau batean guztiaren ezdeusa ikusten du narratzaileak han behean munduan, eta giza mundu guztiaren narda sentitzen du. Izpiritu eme maitagarriak hara eta hona fantasian garraiatzeko astunegi bilakatzen da orduan gaueko hegalaria gogame-na. Giza historiaren geografia azkengabea hegaldatzen –basoak, soroak, zangak, ibaiak, herriskak eta elizak, berriro basoak, belazeak– monotono eta tristea begitantzen zaio narratzaileari orain.

Lurra bera, nire azpian hedatzen zen ordeka laua, lurbira osoa bere populazio iragankorrenekin, ajetsua, premiak, nahigabeak eta gaitzak zapaldua, kateaz lotua hauts miserableko lur-puskari; kortika hauskor, lakatz hori, horren barruan gure planetaren sugune koxkorra gordeta dagoena, bere lizundura-rekin, arrandiosoki guk erresuma animala eta erresuma begetala esaten ditugunak; gizon-emakume horiek, euliak bezain ttattarrak, halere zinezko

euliak baino mila bider ezdeusagoak berak; gorotzez oratutako haien bizitokiak, haien iharduera kiskila, beti bataren, noraezekoaren eta saihestezinararen aurka haien borrokatxo barregarriaren oinatz zirtzil-pirtzilak –nola okaztatzen ninduen bat-batean honek denak! (...) Nire sentimentu guztiak, ozta-ozta izendatzen ausartzen naizen sentimentu bakar batean murgildu ziren: narda sentimentuan, bortizkiena sentitu ere gainera neure buruarena sentitzen nuen nardaren nardan.

Berehala, gero, munduaren gain zabalean hodei beldurgarri bat, heriotzaren fantasma likitsa hedatzen da... Jaunkote errusiar kaikuen komedia Parisen bezain ridikuloa da gizakiaren komedia historian: handinahi harroputz ezdeusa, gizakitxo nanoa; ezerez mirrin bat gure planetatxoa ere. Gain-gainetik mundua eta historia kontentplätzen ari dela, Turgenevek dena ezerez dela sentitzen du bat-batean. Giza adimenak jasan ezin duen hutsaren, ezerezaren horrorea. «Ezereza-ren, suntsieraren pentsamendu soilarekin, zergatik hain estularri durduzatu behar izaten dut nik beti?» esaldiarekin bukatzen da fantasia literario filosofikoa.

(Gure artean Unamuno eta Mirande ditugu Schopenhauerren eraginpeko bi autore, Turgenev hori bere azkenaldian bezala).

Ezereza, angustia, existentzialismoaren gaiak izan dira, gorakienik bi Mundu Gerren inguru horretan (Sartre, Heidegger). Bere razionalismo burgoiaren fiaskoarekin, finitotasun biluziarekin biluzi-biluzi, bere kontzientzia absurduarekin konfrontatuta aurkitu da gizaki modernoa erroetaraino. «Se nos impone la necesidad de una interpretación existencial de la conciencia,

de la culpa y de la muerte», planteatu du Heideggerek¹².

Badakigu: egunen batean dena hilko da. Denaren Azkeneko Heriotza Osoa izango da. Gero, ezer ez (ez da gerorik egongo). Ez da irudi izuarazlea bakarrik: nola ulertu, nola sartu kontzeptuan “azkena”, gero gabea, ezerezaren isiltasun eternoa? Imaginatu eta pentsatzea ere ezinezkoa gertatzen zaigu. Hala zioen Txillardegik 1965ean argitara emandako saio batean; “Azken heriotza dala-ta” zeritzon:

Gu guztiok hiltzea, egia aitortzeko, geu hiltzea alegia, zeu eta neu, funtsez ez zaigu harrigarri iruditzen: gure bihotza asaldatzen da, nahi bada; baina ez gure burua (...). Izan den, den eta datekeen guziaren Amai edo Suntsiera hori, Kosmoaren beraren Azken Akabe-ra eta Heriotza Osoa, aldiz, adimendua-ren muinetaraino zuzen sartzen den ezpata zorrotz bat da; eta hortik gure izate guziaz asalduz betetzea¹³.

«Gure izaiteak higitzea behar du; pausa osoa hiltzea da», Pascalen esanean.

Azkenean dena alferrerako da; kulturak, inperioak, ezertarako ez. Orduan zer, besoak antxumatu eta egonean egon? Ekintzak zentzurik ez du. “Absurdua” da.

Dena den, agian “razionalki” halaxe izango da, mendebalean –esango du-gu berriro–, mistikoak aparte behintzat, ez da hori gizakiak egin egiten duena. Valéryk oso ongi poematu du kontzientzia mendebaldarraren borroka eta

kontrastea (“Le Cimetière marin”): Guziaren heriotzak guztia zentzugabeko agertarazten duela meditazioan murgildurik dago poeta¹⁴, «Non, non!... Debout! Dans l'ère successive! (...) Courons à l'onde en rejaillir vivant!» protestatzen du gesal usain hezeak bat-batean iratzartuta. «Il faut tenter de vivre!».

«No se puede imaginar una vida privada de toda elección», aitortzen zuen Camusek. Alde batera edo bestera, erabaki egiten du eta ekin egiten dio proiekturen bati.

Yo grito que no creo en nada y que todo es absurdo, pero no puedo dudar de mi grito y tengo que creer al menos en mi protesta. La primera y la única evidencia que así me es dada, dentro de la experiencia absurda, es la rebelión¹⁵.

Kontzientzia-hartze errotiko bat bezala, kontzientziaren bere burua azken errealitate gisa ezartze kartesiano bezala, ulertzen du Camusek matxinada hori: «yo me rebelo, luego somos» (ib. 31). Goian irakurri dugun *Egunkaria*-ko pentsamendu egozentriko indibidualistaren aurka (kontsumo-gizarte honetan oso tipikoa azken finean, edo duela mende batzuetako liberalismoren baten antzerako zaharkiloa bestela), bizitzak zentzurik izan dezan (izaki kontzientziadun batentzat), niak ezin lezake bere burua guaren barruan baino atzeman: NI, absurduren aurka matxinatzen naizen neurrian, GU baten kreatzaile naiz. Bestela ez dago nire bizitzaren zentzurik.

12. Heidegger, M., *Kant y el problema de la metafísica*, Mexiko 1981, 203. [orig. alemana 1929koa].

13. Txillardegik, *Huntaz eta hartaz*, Baiona 1965, 63.

14. Ohiko modu hermetikoan adierazita: «Pères profonds, têtes inhabitées,/ Qui sous le poids de tant de pelletées,/ Etes la terre et confondez nos pas...» Lurrera goaz berriro denok eta lurra bihurtzen gara: gure urrats denak horrek errefutatzen ditu. Historia guztiak kanposantuan amaitzen dira.

15. Camus, A., *El hombre rebelde*, Madril 1986, 14 eta 16.

(Bizitzak zentzurik izan dezan, bizitza baino zerbait gehiago izan beharra du: kontzientzia alegia).

Intelektualki, Azken Heriotzaren isfingearekin bi posibilitate daukagu: berak mendera eta irents gaitzala, edo guk mendera eta domeina dezagula. Aurrenekoa jarrera budista litzateke:

Ezerezaren bildur horrek ukitu zuen bihotzean Teilhard. Ezina iruditzen zitzaion azkenean dena alferrik izatea. Eta honetan, esan dudanez, Teilhard mendebaldarra da arras. Dena noizbait suntsituko bada, duarik ez dago, gure izate guziaz asaldatzen da, eta garrasika esango genuke: «Ez!». Baina Indiako filosofietan ez da horrelakorik gertatzen: indiarrak gu baino apalago dira (...). Ezer funtsezkorik ez dagoela jakiteak bakez betetzen du (Buda); ez asalduz, gu bezala. Dena da aldakortasuna; ezerk ez dirau. Dena hutsa da; edo itxura hutsa eta aldakorra. Alferrik da ezeri lotzea; alferrik ez: kaltegarri, eta atseka-be guzien iturri. «Dena hiltzen da, dena amaitzen da», dio ez dakienak. «Ez dago ezer egiazkorik eta sustraidunik; zinez mintzatzera, ez dago, egon, ezer ere» dio dakienak, hau da: Budaren argiak argitu duenak¹⁶.

Krutwigek badauzka euskaraz poesia batzuk molde honetan, gerraondoan. Lehenago Leconte de Lisle zen pentsamendu honetan nahikoa ezaguna literaturan (komentarioan gero Valeryk etorri beharra zeukalako bakarrik zen beharbada hain ezaguna, egia esan): «Rien n'est vrai que l'unique et morne Éternité:/ O Brahma! toute chose est le rêve d'un rêve». Filosofian Schopenhauer noski.

Bigarren: deliberatzen bada, ezereza eta absurdua onartu ordez, kon-

tzientzia haren aurka matxinatzea, Azken Heriotza "garaitzea" hortaz, oraindik bi eratan entseia liteke garaipe hori. Betiereko Itzuliarena da modu bat. Santamariak dialogatu/eztabaidatu dituen pentsamoldeen artean, hori Miranderen baitan aurki genezake, esaterako, edo Unamunoren poesia oso ezagun batean ere bai: egunen batean bere Bilbo maitea ja ez da izango; mundua ez da izango, zeru izarra bakarrik geratuko da; izartegia ere desegin egingo da, ez da ezer izango... Eta beharbada dena berriz hasiko da:

Tal vez... –sin el tal vez la vida es sombra
de pesadilla–
tal vez aun más allá del más allá remoto,
en el espacio ignoto
de tras las más lejanas nebulosas,
un día acaso
la Tierra vuelva a florecer, la misma,
la de espinas y rosas,
la ungida con el crisma
de Isis y Brahma y Júpiter y Cristo.
Y allí, en aquella tierra,
volverá a ser Vizcaya,
sus aguas el Nervión dará de nuevo,
resurgirá la villa,
y volveré a vivir lo que viviera...
¡Absurda maravilla!

Soluzio hau ez da bera oso arrazoizkoa, itxaropen absurdu hori. Unamunok badaki eta irrazionaltasunaren eskubidea –begira horixe!– bizitzaren eskubide bezala errebindikatzen du hain zuzen:

¡Absurda, sí! Sólo tal vez lo absurdo,
y el que estiméis más burdo,
nos libra de la peste de la lógica.

Mirandek, razionalismoaren arbuio berdina erakusten zuenak, "Ortziren ttuntuna" izenburuko poesia hunkigaa

16. Txillardegia aip. lib., 65. Bizitzaren "sokratua", hortaz, ez da oinarritzen bizitzaren balioan, desiraren ezbalioan baizik.

rria dauka, gutxi ezaguna nik uste, merezi duena hemen ohore guztiekin gogoratzea:

Ortziren ttunttuna dabil soinutan
ezerezaz gaindi rhythmua heda.
Huna! ttunttunaren dantza-hotsetan
ezereza uhin bilhakatu da.

Soinu-uhinetan agertu-eta
biraldaturz doa izaiki oro
ttunttunak jo arte dantzaren beta:
jaio 'ta hor-izan eta igaro.

Hotsaren uhinek darabiltzate
izaiki guztiak goiti behera
lehen goizetik gaua hel arte:
bethi berdin dira, nehoiz ez dira
(*etabar*).

Soluzio grekoa esan genezaioke honi. Beste soluzioa historia linealarena da, judu-kristaua esan ohi zaiona, Heriotza Osoaren ordeztar bizitza puruaren Omegan bokaleratzen den Teilhardena adibidez, eta Santamariak ere jarraitzen duena. Teilhard de Chardinek zerikusia handia du Santamariaren pentsabideetan, zientzia eta fedea arazorik gabe josteko. Baina gure lana galderak agerian jartzea zen, ez erantzunak.

Erantzunei gagozkiela, nahi bada, arazo guztion erantzuna duen mito zoragarri bat dago, guztiok dakizuen. Eta kontatzen du, labur-labur, ba omen zegoen tribu bat Jainko handi bat zuena eta adoratzeko zuena. Eta egun batean Jainko hori besteak bezalakoxe gizakia egin zen eta tribuan jaio zen; eta beste indiarrekin batera bizi zen tribuan; beste indiarrek bezalakoxea bera ere, egiten zituzten gauza guztietan. Egun batean, ez dakit zergatik, beste indiarrek harekin haserretu ziren erabat eta hil egin zuten. Baina, zer egingo eta, piztu egin zen; hori izan zuen bere mendekua! Orain, ez da beste indiar bat gehiago besteen artean, indiar ba-

koitzean bizi da piztuta, indiar guztietan, eta indiar denak erdi-indiar erdi-jainkoak dira tribu hartan.— Horixe da, eskeman, Bazkoaren mitoa.

Eta esan daiteke funtsean horixe dela pertsonalismoak razionalki formulatu nahi duena, filosofia bezala.

(Mitoarena guretzat egon daitekeen kontzepturik positiboena da: erlijioaren eta zientziaren artean dago, biak elikatzen).

Pertsonalismoak ez dauka kristaua izan beharrik: pertsonalismo ateistak daude, edo panteista-joerakoak, etab., eta filosofo juduak daude orobat pertsonalismoan oso inportanteak (Martin Buber). Garapide ezberdinak aurkitu ditu Ingalaterran, Alemanian eta Frantzia edo lurralde latinoetan. Mugimendu inportante bat USAn osatu da, *The Personalist* aldizkariaren inguruan, 1920az gero jada (pertsonalismo modernoa filosofia amerikanotzat hartzen da horregatik askotan). Euskal Herrian eragina izan duena hizkuntza frantsekoa izan da batipat, *Esprit* aldizkariarekin, 1932tik aurrera. Pertsonalismoak pertsonaren kontzientzian ezagutzen du erreferentzia absolutu eta sakratu bakarra, gizakiaren intimitate edo barrutasuneko "jainkotasun" esfera, unibertsoarentzat adina historiarentzat absolutuki sakratua.

B) Galderen testuingurua garaian

Gogoeta pertsonalistak bi Mundu Gerren artean eta, Santamariarena bereziki, Espainiako gerra zibila eta II. Mundu Gerraren ostean loratu dira. Hein honetan pertsonalismoak krisialdiko pentsamenduak direla esan genezake: alde hori aipatuko dut nik (nahiko gauza ezagunak dira esatekoak, eta ez naiz luzatuko).

I.- PENTSAMENDUAREN KRISIA: mende-
baleko pentsamenduak, razionalis-
moak, gauzak kontrolpeko bezala
pentsatzen ditu. Errealitatea zer den,
pentsamenduak zer kontrolatu eta lotu
ahal duen da: pentsamenduak lotu ezin
duena, ez da erreala. Lotzeko pentsa-
menduaren tresna nagusia matemati-
ka da. Erreala, matematiza daitekeena
da horrela. Adibidez, euskaldunentzat
arbolak bazuen esanahi handi bat
(beste herri askorentzat bezalaxe nos-
ki), bizitza adierazten zuena, bizitzak
oraindik askatasuna adierazten zue-
nean...: Gernikako Arbola bat asmatu
zuten eta santua iritzi zioten. Hori ez da
“erreala”: mito bat da.

Edo beti aipatu ohi dudan adibidea
aipatzeko: Italiako Toskanan, Erdi
Aroan, San Frantziskok errebelazioaren
bigarren liburu bezala ikusten zuen
Natura; hau Jainkoa erakusten zioten
sinboloz betea zen: loreak, arbolak,
harriak, iturriak. Haiekin adiskidetsuki
solasten zen. San Frantziskorentzat
eguzkia anaia da, ura arreba... He-
riotza bera, mundu honetan ia neka-
tuta gaude bizitzaren gogorraz eta, bila
datorkigun arreba da, beste aldera
lagun egiteko. Bakera eta libertatera.
Naturak errealitate estetiko-mistiko
gutziz erreala du, ekonomikoaz edo
zientifikoaz gainera; Jainkoaren atelier
horretan bizi dira gizon-emakumeak.
San Frantziskoren izpiritu hori artean
bizi-bizirik deskubritzen duzu Floren-

tzia eta Sienan¹⁷. Geroxeago Galilei-
rentzat zeinu matematikoetan idatzita-
ko liburua da natura, eta Toskanako
paisaia eder bera triangelu eta karratu
eta zenbakitan irakurtzen da, Errenazi-
mentuan. Oraindik zientziak eta arteak
elkarturik badiraute Italian, laster
Descartesentzat zentzuen pekoa oro
(begiei mintzo zaien natura koloreanitz
bizi guztia) zientzia modernoan baz-
tertu egin beharko da eta matematika-
ren pera ekar litekeena bakarrik jasan
lezake arrazoimenak; hau da, geometria
edo hedadura eta zenbakitara biltzerik
ez dagoena, ez da razionalki erreala.

Pentsamendu honek gizartea ere
kontrol-sistema bihurtu du ondorioz:
Estatua makina da; makina hobereena,
Estaturik onena.

Honen guztiaren azpian dagoena,
arrazoizkotasunaren kontzeptu (“funda-
mentalista”) bat da, Moderniaren ka-
rakteristikoa, gaur egun denok dakigu-
na onartzerik ez dagoela, baina oso
onartua eta onetsia dagoena sozialki
aspaldian. Gorputzaren eta sentimen-
tuen etsaia, etab. Arrazoizkotasun
teknikoa.

(Ez ote da arrazoizkoa, lagun bat
hiltzen bazaigu, negar egitea? Segun
arrazoizkotasuna nola ulertzen den, ez
da “arrazoizkoa”. Descartesek badu
gutun-pare bat dolumina adierazteko,
eta ikustekoa da)¹⁸.

17. Naturaren ikusmolde estetiko Erdi Aroko hori ez da Errenazimentuan barrena guztiz galdu. Shakespearean *As you Like it* komedian adibidez, Gortea utzi eta Ardenetako basoetan zoriontsu bizi dira gizon-emakumeak. Honela mintzo da hor Dukea: «And this our life, exempt from public haunt,/ finds tongues in trees, books in the running brooks,/ sermons in stones, and good in every thing» (II, 1). Guretzat Naturaren sentiera “ez moderno” hori oso garaikidea eta aktuala da berriro, esanahi ez erlijiosoan noski, Baudelairek ikusi bezala (*Fleurs du Mal*, IV): «La Nature est un temple où de vivants piliers/ Laisserent parfois sortir de confuses paroles;/ L'homme y passe à travers des forêts de symboles/ Qui l'observent avec des regards familiers».

18. Orain edo gero, denok hil behar dugu: «nous ne nous devons pas fort soucier si nous sommes pris quelques années plus tôt ou plus tard», ik. Descartes, *Oeuvres philosophiques*, Paris 1963, (Garnier) vol. I, 775. Gizatasuna halere ez lioke guztiz ukatuko: «Je ne suis pas de ceux qui estiment que les larmes et la tristesse n'appartiennent qu'aux femmes», idazten dio lagun bati, anaiaren heriotzakoan kontsolatzeko; dena den, «comme ce serait être barbare que de ne se point affliger du

II.- KRISIA FENOMENO SOZIAL GISA: Babilioen krisia, esaten da orain. Familia, belaunaldien arteko harremanak (zaharrak karga bat, gazteak eroak), etab. Laneko moralik ez dago, erlijioa krisian dago (ez elizak: elizak erlijioaren galderei erantzuteko modu batzuk dira): Moderniak, pertsonak bere buruaz galdetzea (bizitzaren zentzuaz, etab.) ito egiten du.

UEUk argitaratuta dauka hain zuzen honetaz guztiaz saio bat egoki askoa euskaraz: Juana Atxabal, *Narziso berriaz gogoetak*, 1992. «Modernotasuna –irakurtzen duzu hor– teknikak eta demokraziak gizadiaren askatasun osoa eraikitzeko daukaten gaitasunaren fedea bereizten du». Modernia horren razionalitate-ereduaz:

1. Pentsaera formal-funtzionala darabil, eta, pentsaera funtzionalari dagokion giza portaera disziplinatua, erakunde ekonomikoarentzat, estatu-burokraziarentzat egokia. 2. Arrazoiaren dimentsio zientifiko-teknikoak hartzen du lehentasuna gizartean, beste arrazoidimentsioen baliozkotasuna iluntzera eta baztertzerantz jotzen duelarik. Giza razionaltasuna, razionaltasun tekno zientifikoaz nahastera dator (...). 3. Gizarte-egitura tekno-ekonomikoa razionaltasun funtzionalean oinarritzen da eta, beraz, efikazian, meritukrazian, baliogarritasun eta emankortasun hutsean¹⁹.

Modernitatea itxaropen harroekin eta promesa harrogoekin jaio eta handitu izan da:

Baina emaitzak ez dira izan itxaroten zirenak. Zorionaren eta etengabeko

aurrerapenaren ordez, modernotasuneko gizakiak bi Mundu-Gerra ezagutu ditu; Auschwitz, Hiroshima, Nagasaki eta Gulagen esperientziak bizi izatera iritsi da; langabezia, bortizkeria orokortua, gizadiaren hiru-laurdenaren miseriari ezin irtena, etabar, etabar, bizi ditu gaur. Ondorioz, Aro Modernoko kaleetako mugimenduetan, pentsaeran eta artean: Kafka, Musil, Ionesco, Becket, Orwell edo Joyceren idazlanetan, laster nabaritu zen modernotasunaren ondoreza eta dezepzioa. - Pentsaeraren arloan, bereziki Frankfurtoko Eskolakoak hasi ziren zientzia modernoaren arrakastaren azpian ezkututzen zen menurapen-nahiaren agerpena salatzen. Botere den jakintza modernoak ez du neurririk ezagutu naturaren eta gizakiaren esklaboztapenean eta munduko jaunenganako onespenean, diote frankfurtarrek²⁰.

III.- KRISIAREN KAUSEZ: Desenkantua da orain asko aipatzen den hitz bat. Eta Habermas, orain asko aipatzen den autoreak, honela kokatzen gaitu desenkantu horretan:

El proyecto de modernidad formulado en el siglo XVIII por los filósofos de la Ilustración consistió en sus esfuerzos para desarrollar una ciencia objetiva, una moralidad y leyes universales y un arte autónomo acorde con su lógica interna (...). Los pensadores de la Ilustración con la mentalidad de un Condorcet aún tenían la extravagante expectativa de que las artes y las ciencias no sólo promoverían el control de las fuerzas naturales, sino también la comprensión del mundo y del yo, el progreso moral, la justicia de las instituciones e incluso la felicidad de los seres humanos. El siglo XX ha demolido este optimismo²¹.

tout, lorsqu'on en a du sujet, aussi serait-ce être trop lâche de s'abandonner entièrement au déplaisir; et ce serait faire fort mal son compte, à se délivrer d'une passion si incommode», lb., vol. II, 309.

19. Atxabal, J., *Narziso berriaz gogoetak* (1991ko Pedro Axular Sariaren Saiakera irabazlea), UEU 1992, 10-11.

20. lb., 17.

21. Habermas, J., "La modernidad, un proyecto incompleto", in: VV., *La Posmodernidad*, Barcelona 1985, 28.

Zerk apurtu du, ordea, optimismoa? Zerk eragin du krisia? Santamariaren erantzuna harrigarria da: teknikak berak. Optimismoa ere berak eragin zuen.

a) Hedaduragatik, bizitzako esparru denak menperatu baitizkigu: orain klinika edo maternitate batean jaiotzen gara eta klinikan, botikaz begietaraino, hiltzen gara. Bizitza osoa, eta bizitzaren/heriotzaren alde humanoak bereziki, teknikaren esku daude jarrita, elkarren arteko esperientzi mundutik espazio babestu batera daude aldentuta, gure gizartean. Gizakiak bere burua-ekin topo egin behar lukeen unean, teknikarekin egiten du topo.

b) Garapidearen arintasunagatik: teknologia batera ohituzerako, informazio baten lazgarriaz akordatzerako, teknologia berriago batek eta informazio are lazgarriagoek gainezkatzen gaituzte, eguneroko telebistan, prentsan, supermerkatuan. Gaur gerra bat hor, bihar beste ikaragarriago bat aldamenean, astirik ez dizu uzten indignatzaera iristeko ere. Inguruko errit-moak pasibo bihurtzen zaitu (egunero lurrikara bat, azkenean normalena lurrikara da). Eta materialki bezainbat intelektualki ere kontsumoaren gizartea den honek, morroia izatea zein komodoa den irakasten dizu... Izan ere, problema handienei buruz ez dakigu ezer: milaka ume goseak hiltzen, baina nola soluzionatzen da hori? Arazo teknikoegiak dira denak zuretzat eta niretzat. Demokrazia deitzen duguna hori da, erantzukizunak delegatzeko sistema mekanizatua: norbere erantzukizuna deskargatzea da "razionale-na". Horrela, edozer gauza gertaturik ere, inoiz ez gara errudunak.

Bukatzerara noa.

Kultura hori krisian dagoela, errepi-katu ohi dugu. Baina argi dezagun, zer esan nahi den krisiarekin: ez momentuko krisi bat, kinka txar bat, funtzionamenduko problemak. Aitzitik, kultura teknologikoak oso ongi eta ongiegi funtzionatzen du. Kultura hori krisian, bere burua bilatzen duen pertsonarentzat dago: bere burua bilatzen duenoro, pertsonak desterratuta dagoela, kultura horretan lekurik ez duela, deskubritzen duelako. Pertsonak hor ezin du bere burua aurkitu.

Teknikak bere produktua du ordea, bere adimenaren obra. Eta horra paradoxa: Zientzia, kontzientziak bere xedeetarako asmatu duen bitarteko bat da, tresna bat; zientziak ez daki ezer helburuez eta bai asko efikaziaz, helburuen morroi. Gizarte baten balio-eskalan efikazia lehentasunera goititu denean, ostera, hots, zientzia nagusi den kulturan, zerbitzariak altxatzen dira jaun, molde tradizionalen esateko: bitartekoak helburu bihurtu dira. "Ordena" inbertitu egin da.

Hori litzateke gaurko eginkizuna, Santamariak bere gogoeta pertsonalistekin erantzun bat asmatzen entseiatu duena: nola bihurtu posible berriro helburuez hitz egitea? Ez dago, ordea, pertsona bera baino haragoko helbururik! (laikoak bagara, izan gaitzen osoki eta seriocki). Alegia, nola lortu gure pentsamenduan (ekonomikoan, politikoan, juridikoan) gizakiak berriro pertsonak bezala kontsideratzea? Humanismo berri baten beharra daukagu.

Pertsonaren humanismo bat, ezin izan daitekeena berriro doktrina bat edo "metafisika" bat: bestela pertsona "kontrolpeko" zerbait, "objektu", bihurtuko baitugu oster, modernitateari egozten genion eta gainditu nahi omen genuen zuloan jausiz geu ere. Beraz, pertsonalismoak, ez pertsonaren doktrina bat, baizik pertsonan fedea, adierazten du. Bazkoaren mitoa espresa-

tzen den bezalatsu: fedea biktimaren, ezdeusaren, pobrearen, haurra preso eraman zioten amaren negarraren, aita asasinatuaren, heriotza absurduaren, holokaustoaren, zentzu positiboan. Pentsalari pertsonalista –filosofian gaudenez– gogoeta razional estrikto gisa meditatzen ahalegintzen dena, fedea.

Bibliografia

- Díaz, D.; Maceiras, M., (1975): *Introducción al personalismo actual*, Madril.
Lacroix, J., (1971): *Marxismo, Existencialismo, Personalismo*, Bartzelona.
Maritain, J., (1936): *Humanisme intégral*, Paris.
Moratalla, A. D., (1985): *Un humanismo del siglo XX: El personalismo*, Madril.
Mounier, E., (1961-63): *Oeuvres*, 4 libki., Paris.
Santamaria, K., *Idazlan guztiak* [arg. gabea], Koldo Mitxelena Kulturunea, Donostia.